

# txintxarri<sup>30</sup> urte!



## Extremadurara, herritik atera gabe

Guadalupeko Amaren omenezko jaiak ospatu ditu Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak, giro ederrean / 7

TXINTXARRI

## Arbasoei eta naturari begira

Gotzon Huegun Burgos eskultoreak 'Arbasoak' izeneko erakusketa osatu du; hil amaierara arte bisita daiteke / 8-9

**Herriko nagusiak  
Adinekoen Omenaldi  
Astea ospatzeko gogoz  
dira; egitarau ederra  
aurkeztu dute** / 2

**Erdi Arora bidaiatuko  
du herriak hilaren  
15etik 17ra, Xacobeo  
azokaren zazpigarren  
aldiari esker** / 3

**Ostiraletako paseak  
aurreratu egingo ditu  
Okendo Zinema  
Taldeak; 20:00etan  
hasiko dira** / 4

**Danborrada batekin  
berrekin die  
Lasartearra elkarteak  
50. urteurreneko  
ospakizunei** / 6

**Donostia Arraun  
Lagunak-ek  
denboraldia biribildu  
du Kontxako Bandera  
irabaziz** / 10

**V. Mendi Festa  
antolatuko du  
Lasarte-Oria Trail  
Mendi elkarteak  
hilaren 24an** / 12

## 2023-2024 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

**A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.  
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.**

**IKASTAROAREN IRAUPENA: 2023KO IRAILETIK 2024KO EKAINERA**

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- Online (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

**HAMAR KUOTATAN ORDAINTZEKO  
AUKERA IRAILAREN 20A BAINO  
LEHEN IZENA EMANEZ GERO.**



Udal Euskaltegiak Publikoak irekiak guztiztat.

**EUSKARA,  
bidai  
harrigarria**

#euskarharrigarria

2023-2024  
MATRIKULA  
opoz zabalek



**C1  
16-18 URTEKOENTZAT  
20 EURO**

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00





Biyak Bat egoitzako zuzendaritza batzordea eta udal ordezkariak ekimena aurkezten. TXINTXARRI

## Prest daude Adinekoen Omenaldi Asterako

Urtero lege, aurten ere aitortza jasoko dute Lasarte-Oriako adinekoek. Euren omenezko astea ospatuko dute urriaren 1etik 8ra; askotariko jardueraz betetako egitaraua prestatu dute horretarako

### Txintxarri

Jarduera sorta ederra prestatu du Biyak Bat zaharren egoitzak, udalarekin elkarlanean, Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko; horren berri eman dute berriki, prentsaurrean. Ohi bezala, eta sei eguneko programazioari hasiera emateko, bandera igoera egingo dute. Urriaren 1ean izango da hori, 11:30ean, Biyak Bat egoitzan. Horren ostean etorriko dira beste ekimen guztiak; elizkizunak, bazkariak, dantzaldiak, eta abar.

Iragarritako jarduera guztiak aurrera eramateko. Udalaren kolaborazioaz gain, beste bi eragilerena ere izango dute; Gurutze Gorriarena eta Ostadar SKTrena; martxa neurrian lagunduko dute. Gogoan izan dituzte horiek aurkezpen agerraldian, eta eskerrak eman dizkiete.

Bestalde, azken jai eguna, urriaren 8a, urrezko ezteiak egingo dituztenen eguna izango da; aurten hamasei bikote omenduko dituzte. Ondoko laukian duzue egitarau osoa, egunez egun.

### Egitaraua, egunez egun

#### Urriak 1

**11:30ean:** Bandera igoera, Biyak Bat egoitzan.

**12:00etan:** Meza, San Pedro elizan.

**13:15ean:** Umerezko ikuskizuna, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

**14:00etan:** Bazkaria Michelin kirol gunean. Bertara joan nahi dutenek txartelak erosi behar dituzte, jubilatuen egoitzan. Bazkalostean, dantzaldia, Ibai Berriak taldearekin.

#### Urriak 4

**18:00etan:** Bingoa, Biyak Bat egoitzan.

**20:00etan:** Sari banaketa, jubilatuen egoitzan.

#### Urriak 5

**19:30ean:** Duo Imperial taldearen emanaldia, kultur etxean.

#### Urriak 6

**11:00etan:** Ondo ibili, Okendo plazatik abiatuta.

**12:00etan:** Ondo ibili, Antonio Mercero gunetik abiatuta.

**17:00etan:** Bideo foruma, Biyak Bat egoitzan.

#### Urriak 7

**11:00etan:** IX. Ibilaldi neurtua egingo dute: Okendo plazatik abiatu eta herrian barrena ibiliko dira.

#### Urriak 8 - Urrezko ezteiak egiten dituztenen eguna

**10:40ean:** Kalejira, jubilatuen egoitzatik abiatuta.

**11:00etan:** Meza, Brigitarren komentuan.

**12:00etan:** Opari banaketa, Biyak Bat egoitzan. Ondoren, bazkaria, Herriko Etxean eta dantzaldia.

## Aisia, kontzientziazioa eta hezkuntza sustatuko dituzte

Gaztelekuko jarduerak aurkeztu ditu udalak urritik ekainera artekoak; zabalik dago izen ematea

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ezaguturazi du Gaztelekurako prestatu duen eskaintza, urritik ekainera artekoa. Eskuorri batean jaso ditu ikastaro, hitzaldi, indartze eskola, izen emate datu eta beselakoak; datorren astelehenetik aurrera banatuko ditu etxekoak, hilaren 18an.

Eskolan laguntzeko tailerra da antolatzaileek gehien bultzatu nahi duten ekimenetako bat. 12 eta 18 urte arteko ikasleei zuzenduko die, ikasgaiekin dituzten zalantzak Gaztelekura eramanean (Jaizkibel plaza, 14) eta laguntzaile izango duten begiralearekin kontsultatzeko. "Xedea ez da akademia bat izatea, baizik eta ikasketetara biltzeko gune bat". Astearte eta ostegunetan aurrera eramango dute jarduera, 17:30etik 20:00etara. Saiok urriaren 3an hasiko dira. Interesa dutenek ez dute izenik eman behar, aski izango dute lehen egunean ordurako bertaratzea; hori bai, tokiak mugatuak direla azpimarratu dute.

Ikasturte honetara kurtsoen artean, hauek aipatu dituzte: bideo edizioa, *fast food* edo janari lasterra etxean prestatzea, altzariak zaharberritzea, magia eta DJ Sesioa. Horiek guztiak doakoak izango dira eta parte hartu nahi dutenek inskribatu egin beharko dute. Bidenabar, udaleko ordezkariak gogorarazi dute erabiltzaileek aukera dutela ideiak proposatzeko, 5+1 delako egitasmoaren bidez: he-

rritarren batek ikastaro jakin bat aurrera eramanean nahi badu, beste bost pertsonarekin elkar-tu eta Gaztelekua kudeatzen dutenengana jo behar du. "Eskura ditugun baliabideen arabera saiatzen gara egitasmoak aurrera eramanean", argitu dute.

Elkarlan horren adibideetako bat da BBarte izeneko ikastaroa. "Herritar talde batek proposatuta, iaz egin genuen lehen aldiz eta harrera bikaina izan du". 3 eta 9 urte arteko haurrek esperimendatu, jolastu eta askatasunez adierazteko gaitasuna eskuratzea da xedea, arte diziplina eta emozioak landu bitartean. 3-4 edo 5-6 urteetako taldeetan daudenek 41,25 euro ordaindu behar dituzte errolatuta badaude, eta 275 euro errolatuta ez badaude. 7-9 multzokoek, berriz, 24,75 euro edo 165 euro.

### Musika entseatzeko gelak

Ikasturte honetarako eskaintza aletzeaz gain, udal ordezkariak gogorarazi dute herriko musika taldeek aukera dutela Gaztelekuko bi entsegu gelak erabiltzeko, baldin eta kideak errolatuta badaude. Interesa dutenek izena eman dezakete dagoeneko, hau guztia zehaztuta: pertsona kopurua, adina (gazteek lehenetsia dutelako), taldearen izena eta entseatzeko egunak eta orduak. Horren harira, hilaren 26an bilera bat egingo dute eskatzaile guztiarekin, guztien artean egutegi amankomun bat adosteko.

## Kontuan izan beharrekoak

### Izena ematerako orduan...

- Aurrez aurre egitekotan, Manuel Lekuona Kultur Etxera joan behar dute herritarrek, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.
- Telematikoki egin nahi izanez gero, udaletxeko erregistro elektronikoa erabili beharko dute, etxean jasoko duten eskuorriko QR kodea eskaneatuta.
- Jardueretako tokiak mugatuak dira, eta gehieneko partaideen kopuruen irizpideak erabiliko dituzte erabakiak hartzeko. Toki baino inskripzio gehiago egonez gero, zozketak egingo dituzte.
- Egitasmoak aurrera eramateko ezinbestekoa da parte hartzaileen kopuru minimo batera iristea.

# Kale Nagusian barrena eta berrikuntzekin

Erdi Aroko VII. Xacobeo Azoka aurrera eramango dute hilaren 15etik 17ra, erdigunean. Ikuskizun eta tailer ugari egin eta 112 produktu postu jarriko dituzte. Garai historiko horretako gerlarien borrokaldien erakusketa izango da berritasunetako bat

## Txintxarri

"Asko hazi da Erdi Aroko Xacobeo Azoka herri honetan; garai batean Hondarribiakoak zuena bezainbesteko ospea du, kanpotik jende asko etortzen baita ikustera; gero eta gehiago". Pedro Carrascoren hitzak dira, feria berezi horren antolatzailearenak. Prentsaurrekoa eman du Agustin Valdivia alkate, udaleko Kultura sailburu Anne Ugarteburu eta Kultura saileko teknikari Juantxi Ugarterekin batera, gaur (hilak 15) hasi eta etzi amaituko den ekimenaren nondik norakoak azaltzeko.

Zazpi urte daramatzate azoka hori aurrera eramaten eta herritarren agendetan ohiko hitzordu bilakatu da. Edonola ere, urtero saiatzen dira antolatzaileak egitarauari buelta bat ematen eta berritzen. Carrascoren hitzetan, aurtengo arretagune nagusia izango da Erdi Aroko gerlariak nola borrokatzen zuten ikusteko erakusketa, Okendo plazan jarriko dutena; garai horretako munduko txapelketa bat nolako zen irudikatuko dute. Bihar eta etzi pase bana egingo dituzte, 13:30ean eta 19:00etan. Horrez gain, makina bat ikuskizun eta tailer gehiago eskainiko dituzte, hala nola, artisautza eta idazketarena.



Ezker-eskuin: Ugarte, Valdivia, Ugarteburu eta Carrasco. TXINTXARRI

Esan bezala, erdigunea hartuko du azokak, Okendo batetik eta Kale Nagusi osoa bestetik, pandemiara arte izan zuen espazioa berreskuratuta. Horren harira, alkateak azaldu du trafikoa gaur goizeko 09:00etan itxiko dutela eta hilaren 18an berrireki, 01:00etan.

## Goizetik, iluntzera

Xacobeo azoka gaur arratsaldean zabalduko dute, 17:30ean. Lehen aipatutako ikuskizun eta tailerrez gain, herritarrek nahi adina postu (112, zehazki) izango di-

tuzte eskura, jakiak eta beste-lako produktuak erosteko. Antolatzaileek zehaztu dute 23:00etan itxiko dutela feria, eta 10:30ean ireki (bihar eta etzi).

Kontrolpean izan dezaketen guztia zehaztuta eta aurrera eramateko prest, agerraldira bertaratu direnek zerura so egin eta eguraldi ona egitea espero dutela adierazi dute. Astebururako iragarpena nahiko ona izanagatik, ezin %100ean fidatu, informazioa eskuratzeko Erdi Aroan baino askoz baliabide gehiago izanda ere.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

## Osasunaren izenean

"Denbora daramat kirola erregulariki egiten nire osasun mentala on egiten diolako. Gertuko gizon batek esan dit gutxiago egin beharko nukeela, tripa jaitsi bai, baina, izterrak gehiegi handitu zaizkidala eta kontuz ibiltzeko. Hori itsusia dela. Nahikoa da ez?".

Hau idatzi nuen atzo Twitterren amorruren amorruez, eta ez dira gutxi izan jaso ditudan erantzunak, identifikatuta sentitu direnak.

Duela urte batzuk osasuntsu egoteko, alegia, argaltzeko, kirola egitea gomendatzen zidan pertsona bera da hau. Eta, bai, onartzen dut orduan egin nuen gisan atzo ere ispiluaren aurrera joan nintzela. Naizena, hala, agian, bere hitzek zizelkatutako irudia, zalantzan jartzera.

Besteen gorputzak goitik behera aztertu eta beraien elikadura/kirol ohituren erradiografia egiteko zilegitasuna dugula sentitzen dugu, osasunaren izenean. Eta hori gutxi balitz, horren atzean benetan zer dagoen jakin gabe, iritzia ematekoa. Dugula diot, gu ere bagarelako jokatzeko modu sistematizatu honen parte, eta lanketak lanketa, deseraikitzeak deseraikitze sarri besteak epaitzen topatzen dugulako gure burua.

Zenbat min eragin dezakegun osasunaren izenean... interesaren arabera instrumentalizatu dugu kontzeptua eta bere esanahia erabat lausotu da (dugu) dagoeneko. Pasadizo honekin argi gelditu baita ez duela balio bera osasun mentalak ala osasun fisikozat dugun horrek.

Eta elkar gurutzatzen diren gauzak direnez gero, nork daki 10 kilo argaldu eta "osasuntsutzat" dugun gorputz horrek ez ote duen atzean antsietateak jatea galarazten dion buru bat, pertsona bat? Ala bere burua onartu ez, eta, afaldu gabe aste bete daraman norbait? Nork daki gorputz normatiboa ez den gorputz lodi horrek ez ote duen kirolik egiten eta elikadura osasuntsu bat eramaten?

Nik buruak arnastu dezan egiten dut kirola, eta eskerrak izterrak hazi zaizkidan itolarria eta bularreko presioa areagotu beharrean. Eta ez dut azaltzen zorretan nagoelako, baizik, bakoi-tzari on egiten dioten gauza horiek egiten, benetan osasun mental zein fisikoaren izenean norberaren burua zaintzearen aldeko aldarria egin nahi dudalako.

Agian besoak sendotzeko helburuarekin entrenatzen jardungo dut aurrerantzean, beharbada nirea ez da emakume gorputz estetikoak izango, baina, horrelakoei zaplazteko batez erantzuteko aukera emango dit.

# HEZITZAILE lan poltsa



AURTENGO PROGRAMAK  
DISEINATZEN ARI GARA.  
GUREKIN LAN EGIN NAHI  
BADUZU BETE  
FORMULARIOA:

labur.eus/hezitzaileak2324







'20.000 especies de abejas' proiektatu osteko solasaldia, Estibaliz Urrezola zuzendariarekin. OKENDO ZINEMA TALDEA

# Kultur etxera zinema ikustera, goizago aurten

Okendo Zinema Taldeak urrian ekingo die emanaldiei, berrikuntza nabarmen batekin: ostiraletako paseak 20:00etan hasiko dira, ez 22:00etan. Bestalde, iragarri dute hemengo ekoizleen lana erakusten segiko dutela, Euskal Dokumentalen Zikloaren bidez

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Zinemazaleok, adi: aurten goizago izango dira Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango dituen emanaldiak. Eragile horretako kideek jakinarazi dutenez, 20:00etan ekingo diete proiektzioei, arrazoi hauengatik: "Gaur egun, pelikula gehienek bi ordu edo gehiago irauten dute, eta, 22:00etan ematen hasiz gero, berandutu

egiten zaigu; uste dugu pandemiak eragin duela gure ohituretan, lehenago etxeratze joera dugu orain. Gainera, bi ordu lehenago hasteak erraztu egingo digu gonbidatuak ekartzera; oso interesgarria iruditzen zaigu ikus-entzuleek egile eta aktoreekin iriztiak partekatu ahal izatea". Maiatzeko proiektzio bat jarri dute horren adibidetzat, *20.000*

*especies de abejas* filmarena. "Estibaliz Urrezola zuzendaria ekarri genuen, aretoa bete zegoen... Oso aberasgarria izan zen". Aurreneko paseak urrian egingo dituzte eta datozen egunetan emango dute prestatu duten karteleraren berri.

Ohiko proiektzio horiez gain, azken urteetan Euskal Herriko ekoizleen lana ikusarazteko

emanaldi sorta interesgarri bat aurrera eraman dute, Euskal Dokumentalen Zikloa. Aurreratu dute kurtso honetan ere egingo dutela, 2024ko otsail-martxoan. "Ikusi dugu pase jendetsuenak egitasmo horretakoak izan ohi direla; gertuko eta batez ere euskarazkoak diren ikus-entzuleen herriarrak erakartzen dituzte, produkzio handiagoek baino gehiago". Ezaugarri horiez gain, ekimen hori deigarri egiten duena da inguruan ez dagoela halakorik. "Sona hartzen ari da zikloa, zuzendariak gugana jotzen hasi direlako euren lanak egitarauan sartzeko. Azken urteetako uzta oso ona izaten ari da eta oso pozik gaude horregatik, baina badu alde bat horren ona ez dena: zenbait dokumental kanpoan utzi behar izaten ditugu, aukeratzeko asko ditugulako". Euskal dokumentalena ez ezik, udako zikloa ere aurrera eramango dute, ohi bezala. Proiektzio horiek uztailean egiten dituzte.

## Zinemaldia Donostian

Hilaren 22tik 30era egingo dute Donostiako 71. Zinemaldia. Urteko garai berezietako bat izan ohi da hori Okendo Zinema Taldeko lagunentzat. Taldekideen artean hitz egin eta antolakuntzak ematen dizkien pase pare batekin makina bat pelikula ikusten dituzte urtero. Aretotik atera ostean, euren artean komentatzen dituzte zerbait hartu bitartean, eta baita azken urteetan egin duten "kuadrillako" kideekin ere, taldekoak izan ez baina urteen poderioz harreman estua egin duten zenbait pertsonarekin.

Okendo Zinema Taldeaz beraz hitz egiterakoan, kideek azpimarratu dute "luxua" dela zinemarekiko zaletasuna elkarrekin

partekatu ahal izatea: "Talde majoa osatu dugu, profil desberdinak batzen dituen". Horieta-ko batzuen kasuan, hobby izateaz gain ogibide ere badenez, erraztu egiten dizkie zenbait lan eta ate gehiago ireki: "Xanti Salvador izan da gure azken 'fitxaketa', a zer nolakoa! Ekoizpen eta jende asko ezagutzen du, kontaktuak egiteko lana izugarri erraztu digu. Taldekideetako baten bidez ezagutu dugu, Ane Arteagaren bidez; esan zigun Lasarte-Oriara zetorrela bizitzera eta taldera batzeko gogoia zuela".

## Zaletasuna bultzatzen

Belaunaldi berriengan zinemarekiko harra sortzea garrantzitsua da Okendo Zinema Taldekoentzat, eta, horregatik, elkarlan egitasmo bat martxan jarri dute Oriarte institutuarekin. Iaz, esaterako, Jonas Trueba zuzendariaren *Quién lo impide* filma eman zuten eta esperientzia "polita" izan zela azpimarratu dute. "Bi helburu nagusi ditugu: gazteen artean Okendo Zinema Taldea ezagutzera ematea eta zinemarekiko zaletasuna bultzatzea". Horren harira, *Zinema (h) abian* egitasmoan parte hartzen duen ikasle taldea joan zen pase horretara; etorkizunean proiektu gehiago amankomunean abian jartzeko hazia izan daiteke.

Lehen aipatutako xede horiek betetzeko bidean, aurten ere institutuarekin kolaboratzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute taldeko kideek.

## ORRIARTEREGIN KOLABORATUKO DUTE, GAZTEENGAN ZALETASUNA BULTZATZEKO

## Hassana-k eta Abdi-k gure herrian igaro dute udara

Saharako kanpalekuetara itzuli dira honezkeroko bi umeak. Harrera familietako batekin hitz egin du TXINTXARRI-k

### Txintxarri

Oporrak Bakean egitasmoaren bidez, Saharan bizi diren umeek aukera dute Euskal Herrira etorri eta udara harrera familiekin igarotzeko. Lasarte-Oriana bi izan dira aurten, Hassana eta Abdi.

Harrera familietako batekin bizitako kontakatu du.

Esperientzia "ederra" bizitu dutela adierazi dute familia horretako kideek, hasiera-hasieratik, egokitzapena "oso erraza" izan zelako, ohikoena izan ez arren.

Tttakun Kultur Elkartearen udako txokoez gozatu zuten Haron begiralearen laguntzarekin, eta abuztuan oportetara joan ziren.

Duela gutxi itzuli dira haurrak Saharara. Penatuta esan zioten agur elkarrri, baina bizitakoagatik eskertuta. Ohar bat egin du familiak: "Ezin dugu ahaztu errefuxiatuak direla eta gordina dela beraien egunerokoa". Hurrengo urtean proiektu horretan parte hartzerantz animatu dituzte herriarrak, familia gehiagok haur gehiago har ditzaten.



Abdi, Haron eta Hassana, eskutik helduta, udako txokoetako jardueraren batean. TXINTXARRI



# Ferrak bilatu beharko dituzte sariak lortzeko

Stock Azokaren ostean, ekimen berria abiatuko du Aterpea merkatarien elkarteak: Ferraren bila. Urre koloreko ferrak aurkitu, horiei argazkiak atera eta sare sozialetan partekatzea izango da jolasa. Erosketa bonuen zozketan sartuko dira parte hartzaileak

## Txintxarri

Egitasmoak hiru asteko iraupena izango du; hilaren 18an hasi eta urriaren 8an amaituko da, eta merkatarien elkarteko kideek azaldu dutenez, 50 establezimenduk parte hartuko dute horretan. Astez asteko multzokatze bat egingo dute komertzioekin; horrela, horietatik guztietatik lehen taldekoek hilaren 18tik 24ra jarriko dituzte ferrak erakuslelhoetan ikusgai. Bigarrenekoek, berriz, hilaren 25etik urriaren 1era erakutsiko dute ferra, eta, azkenik, hirugarren multzokoek urriaren 2tik 8ra.

Gauzak horrela, ferra horiek bilatzea izango da bezeroen zereginetako bat, baina ez bakarria. Izan ere, horiek aurkitzen dituztenean, argazkia atera eta sare sozialetan partekatu behar-

ko baitute. Gainera, merkatarien sare sozial kontuaren jarraitzaile izatea ezinbestekoa da, eta horrekin batera, profil hori bera eta bi lagun izendatu beharko dituzte igotako argazki bakoitzeko. Ohartarazi dute parte hartzailearen profilak irekia izan behar duela eta ez pribatua, zozketa egiten duten egunera arte gutxienez. Baldintza horiek guztiak betetzen dituztenak, erosketa txartelen zozkan sartuko dira; Aterpeak 2.000 euro banatuko ditu bonuetan (500 euroko bi eta 250 euroko lau).

Lasarte-Oriako Udalak dei egin die herritarrei kanpainarekin bat egin eta egitasmoan parte hartzera. Eskerrak eman dizkio merkatarien elkarteari herriko merkataritza sustatzeko egiten duten ahaleginagatik.



Merkatarien elkarteko kideak Noaia bidaia agentzian, Ferraren bila aurkezten. TXINTXARRI



Aldika produktu sorta eder bat eskura dezake irabazleak. TXINTXARRI

## Udarako argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna hilaren 17a izango da, igandea

Udaran argazki politik atera dituzu? Zure zaletasuna plaza-ratu nahi duzu eta gainera sari bat eskuratu? Orain duzu aukera! Bidali zure argazkiak eta sari aparta irabaz dezakezu. Bi sari egongo dira, epaimahaiaren arabera argazki onena denak Aldika produktu sorta eder bat eramango du eta irakurleok onena zein den bozkatzeko aukera izango duzue (irailaren

18tik 21era) eta kasu honetan Ttakuneko produktu sorta bat eskuratuko du bozkatuenak.

Argazki originala izan behar du (hau da, norberak egindakoa), izenburu batekin eta gehienez hiru bidali daitezke. Parte hartzeko azken eguna irailaren 17a, igandea. Animatu eta bidali argazkiak [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus), 646 82 44 66 (WhatsApp) edo webgunetik i go zuzenean.

Lasarte - Oria 2023

ferraren bila

2000€

saritan • en premios

Jolastu Lasarte-Oriatik zehar urre-koloreko ferren bila!

Irailaren 18tik Urriaren 8ra



Eskaneatu QR kode hau edota sartu: <http://www.aterpea.es/ferrarenbila.html>  
Kontsultatu promozioaren oinarriak eta establezimendu parte-hartzaileen zerrenda.





# Danbor hotsekin gogoratu dute urteurrena

Lasartearra elkarte gogotik ari da bere 50. urtemuga ospatzen. Urte honetan zehar aurrera eramaten ari den ekimenei danborrada gehitu die berriki. Zumaburu auzoan barrena egindako ibilbidea bukatutakoan, egoitzan hamaiketako goxoa egin dute

## Txintxarri

Mende erdi ez da egunero betetzen, eta, horregatik, urtemuga berezi hori gogotik ospatzen ari dira Lasartearra elkarte lagunak: bertso afaria, mus txapelketa, lagunarteko futbol partida eta herriko futbolari ohien arteko solasaldia, eta abar. Jarduera sorta horri danborrada alai eta jendetsu bat gehitu berri diote.

Hilaren 9an, larunbatarekin, aurrera eramane zuten aipatu danborrada hori. Hitzordua, nola ez, Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzan jarri zuten, 11:00etan. Aurreikusitako baino ordu erdi geroago abiatu ziren bertatik, Zumaburu auzoan barrena egin zuten ibilbidea osatzera. Bandariarik buru, bandak, danbor eta upel jotzaileak ilaran joan ziren Arantzazuko Ama eliza aurrealdera. Ama birjinaren eguna izanik, bertan egin zuten lehen geldialdia. Pieza pare bat jo eta aurrera jarraitu zuten. Egoitzara bueltan, giro onean gozatu zuten elkarte sukaldariak prestatu zieten hamaiketakoaz. Jateko, txorizo eta haragi egosia; eta edateko, sagardoa, freskagarriak ala ur freskoa aukeran, beroa uxatzeko.

## Estatutu aldaketa

Lasartearrako bazkide guztiak gizona dira gaur-gaurkoz, baina elkarte lehendakari Txomin Balzak azpimarratu du emakumeek ere badutela horretarako aukera, 2011n estatutuak aldatu zituztenetik. Erribera kaleko egoitzara joan eta eskaera egitera animatu ditu: "Gaur egun gongo zuzendaritza taldeko kideok erabat alde gaude". Azaldu du kide bakoitzak dagoeneko elkartean dauden bi bazkideren bermea behar dutela, eta onartutakoak urtarrean sartzen direla elkartean.

Lasartearra 1973ko uztailearen 31n inauguratu zuten, nahiz eta



Belaunaldi desberdinetako herritarrek parte hartu zuten danborradan. TXINTXARRI



Geldialdi bat Arantzazuko Amaren parrokiaren aurrean egin zuten. TXINTXARRI



Oria txarangako musikariak izan zituzten lagun danbor jotzaileak. TXINTXARRI

ekainerako dena prest zegoen. "Data ofiziala da uztailekoa, orduan eman zuelako zabaltzeko baimena garaiko gobernadore

zibilak". Kirol izaera izan zuen hasieran eta urte batzuk geroago bilakatu zen elkarte gastronomiko.

## Aste gastronomikoa eta bazkidearen eguna

Udarako oporren ostean danborradarekin hartu dute martxa Lasartearra elkartekok eta erritmoari eutsiko diote hilabete honetan zehar, aste gastronomikoa eta bazkidearen eguna antolatuta.

Hilaren 18tik 21era, bi egunak barne, herriko sukaldari bat gonbidatuko dute Erribera kaleko 10. zenbakian duten egoitzara, pintxo goxo bat presta dezan. Hauek izango dira, hurrenez hurren, aste gastronomikoan parte hartuko dutenak: Javi Penas (Herriko Etxea), Javi Mendo (LaVie Gastrobar), Sergio Humada (Casa Humada) eta Yon Mikel Rodriguez (Avenida taberna-jatetxea). Lasartearra elkarte lehendakari Txomin Balzak TXINTXARRI-ri kontatu dionez, sukaldari bakoitzak zuzenean prestatuko du jakia, 20:00etatik aurrera, elkartera bertaratzen diren guztien aurrean. "Herritarrei jakinarazi nahi diegu edonor etor daitekeela, ez bazkide direnak bakarrik". Bertaratzen direnek pintxoak probatzeko aukera izango dute, eta ordaindu beharko duten gauza bakarra edaria izango da, Lasartearran bertan kontsumituz gero.

Aste gastronomikoa itxi eta hiru egunera, hilaren 24an, igandearrekin, bazkidearen eguna ospatuko dute. 11:00etan irekiko dute egitaraua, Arantzazuko Ama parrokiaren meza eginda, hil egin diren bazkideen omenez. Balzak jakinarazi duenez, Erketz EDT

dantza taldeko kideek elizkizun horretan parte hartuko dute, arkuekin. Bukatutakoan, 11:45ean, poteo girotu bat egingo dute erdiguneko taberna batzuetan barrena; Avenida, Ilargi, Arkupe eta Genesis. Bentzaharreko Mutiko Alaiak musika taldeak girotu du eguerdiko plana. Herrian bueltaxo bat egin ostean, Erribera kaleko egoitzara itzuli eta bertan bazkalduko dute, 15:00etan. Mikel Eizagirrek egingo ditu sukaldari lanak. Bazkalostean, aintzatespen berezi batzuk egingo dituzte: 50 urte daramatzaten bazkideei, Lourdes Sarabiari (sorreran paperak egiten lagundu zuen) eta Valentina Gainzari (Lasartearraren armarría eskuz brodatu zuen). Egun hori bazkideei aitorzen egiteko erabiliko duten arren, herritarrentzat ere prestatu dute jarduerarik: Zumaburu plazan puzgarriak jarriko dituzte haurrentzat 11:30ean, eta Erketzeko dantzariak emanaldi bat egingo dute ordu erdi geroago. Eguraldi txarra egiten badu, Loidibarren pilotalekura joango dira.

## Urriaren, gehiago

Maiatzaren ireki zuen ospakizun egitaraua urri bukaeran itxiko du Lasartearra elkarteak, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeo Orkestrak emango duten kontzertuarekin. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da emanaldia, 19:00etan.



TXINTXARRI



# Jai giroa nagusi

## Zaindariaren omenezko jaiak ospatu dituzte

Guadalupeko Amaren omenez, izen bera duen Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak jaiak ospatu zituen Adarra kalean duen egoitzan eta inguruetan, hilaren 7tik 10era. Ohi bezala, makina bat jarduera aurrera eramán zituzten, adin guztientzako: marrazki lehiaketa, jolasak, ginkana, herri kirolak, futbolina, Extremadurako jantzi tradizionalen desfilea, probintzia horretako elikagai goxoetan oinarritutako bazkari, afari eta askariak, karaokea, bolo txapelketa, LOZETekin elkarlanean erraldoi, buruhandi eta zezensuzkoen kalejirak, ama birjinaren omenezko meza, musika, dantza, festa... eta beste ekimen ugari.

Hitz gutxitan esanda, egun horietan zehar Sasoeta auzora bertaratu zenak Extremadurara bidaiatu zuen, gure herritik ateratzeko beharrik gabe. Adarra kaleko egoitzatik bandera kendu eta datorren urtera arte gorde badute ere, egitasmoak aurrera eramaten jarraituko dute Lasarte-Oria girotzen jarraitzeko.



Extremadurako jantzi tradizionalen desfile koloretsu bat egin zuten. TXINTXARRI



Haurrek ere primeran pasa zuten jaietan zehar. TXINTXARRI



Paella goxo batekin indarrak hartzen. TXINTXARRI



Jalgune elkarteak antolatutako futbolin txapelketa. TXINTXARRI



Brotos de Encina taldearen emanaldiak herritarren ikusmina piztu zuen. TXINTXARRI



Paula Letziak bakarriketa saioa egin zuen. TXINTXARRI



Bolo txapelketako partaideetako bat, jaurtiketa egiten. TXINTXARRI



Elkartea lepo bete zuten afaltzera eseri ziren bazkide eta udal ordezkariak. TXINTXARRI



**Maddi Zaldua** DONOSTIA

Uztailean zabaldu zuen Gotzon Huegun Burgos herritarren (Lasarte-Oria, 1972) *Arbasoak* izeneko erakusketa Donostian. Egurrez egindako hamasei pieza jarri ditu erakusgai eta salgai. Gizakiak naturarekin duen harremana erakutsi du horien guztien bidez, eta artelan sorta baliatu du bere arbasoei keinu egiteko. Sorkuntza prozesuari buruz hitz egiteko elkartu da berarekin TXINTXARRI aldizkaria.

**Gizakia eta natura uztartzen dituen sorkuntza prozesu bat da *Arbasoak*-*Ancestros*? Naturarekin duzun harremana islatzen du? Zein harreman duzu izadiarekin?**

Duela sei urtetik hona Azkaraten (Nafarroa) bizi naiz, Araitzeko bailaran. Nire etxe-tailerra Balerdi mendiaren azpian dago, hortaz, pentsa, basoz, naturaz inguratuta nago; txakurrarekin paseora irten, eta hori ikusten dut. Horrek eskaintzen dizkidan irudiak dira erakusketa honetan ikus daitezkeenak. Horiek, noski, nire burutik iragazita, interpretazio bat eginda sortzen ditut lanak. Ikus daitezke udazken koloreak, likenak, zuhaitzak moztu ostean geratzen diren enbor ipurdietan zirrikituen bidez sortzen diren marrazkiak, eta abar.

**Eta zergatik '*Arbasoak*' izena? Zureekin du lotura?**

Bai. Erakusketari izena jartzeko unea iritsi zenean, senideei keinu egitea erabaki nuen; hortik *Arbasoak* izena. Nire aitaren aldeko arbasoak, aitona eta birraitona basoko jendea ziren; bertan egiten zuten lan, zuhaitzak mozten. Familian ere badugu aizkolari izandako senide ospetsu bat, XX. mende hasierako Leon Huegun. Horiei keinu egin nahian erabaki nuen izena. Nire arbasoek egurra basotik ateratzen zuten, eta nik, berriz, egurra lantzen dut. Hasiera batean, hitz horrek basoarekin ere loturarik izan zezakeela pentsatu nuen, baina, etimologikoki ez dago loturarik.

**Nolakoa izan da '*Arbasoak*'-en sorkuntza prozesua? Oker ez banago, urte luzeetako esperimentazio lanaren emaitza izan da, ezta?**

Bai, duela hamar urte hasi nintzen obra hauek lantzen. Eskultura lantzen dut mandatu ere, baina beste formatu batekin hasi nahi nuen, muralekin. Orduan, duela hamar urte hasi nintzen testura batzuk lantzen, ikusiaz

# "Bertako egurrak erabiltzen ditut, gure basoetakoak"

**GOTZON HUEGUN BURGOS** ESKULTOREA

'Arbasoak' izeneko erakusketa zabalik du eskultorea, Donostian. Bi solairuko erakusketa aretoan, hamasei artelanez atondua; lau eskultura eta hamabi mural. Guztiak zurezkoak



Huegun 'Udazkeneko euria' artelanaren aurrean. Udazken koloreko hostoak, eta euri tantak irudikatu ditu obra horretan. TXINTXARRI

formatu berria izan zitekeela, eta pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago sakontzen joan naiz, azken emaitza lortu arte.

Enkarguekin ere lan egiteak esan nahi du, horiek nire sorkuntza lanekin uztartu behar ditudala, eta horrek denbora eskatzen du. Mandatuek izaten dute lehentasuna, nahiz eta nire sorkuntza lanekin aritzeko denbora ere hartzen dudana tarteka. Horregatik izan da azken hau hamar urteko prozesua.

**Beraz, horrelako artelanak sortzeko presak alde batera uztea ezinbestekoa izango da, ezta?**

Bai, hala da. Enkarguen kasuan, aurrekontu eta denbora mugatu batekin egiten dut lan, hortaz denbora ondo neurtu behar izaten dut, baina nire kabuz ateratzen diren lanetan ez daukat inolako denbora mugarik. Nire helburu bakarra da egin dudana erabateko asebetetzea sentitzea; nire buruan ikusten dudana emaitza lortzea. Dimentsio aldetik ere ez dut mugarik jartzen. Ulertzen dut tamaina aldetik handiak izan daitezkeela etxe arrunt batean jartzeko adibidez, baina nire lan pertsonala da eta hala irudikatzen dudanez, horrela sortzen dut, baldintzarik gabe.

**Zer ikus dezakete erakusketara bertaratzen direnek?**

Basoan denok ikus ditzakegun irudiak ikusiko dituzte; likenak, zuhaitz zartatuak, udazken koloreak...

**Guztira hamasei lan bisita daitezke? Horietatik batzuk eskulturak eta muralak besteak.**

Bai, hori da; hamabi mural eta lau eskultura.

**Ordena jakin batean egin al dituzu?**

Nire buruan beti ideia bat baino gehiago ibiltzen da bueltaka; mandatu amaizten dudanean ikusten dut zer egiteko gogoia dudana. *Arbasoak* osatzen duten lanen artean, *Liken I*-a izan zen egin nuen lehena, baina ez dut ordena jakin bat jarraitu.

**Eta gertatu zaizu batekin hasi, bazter utzi eta beste batekin jarraitzea?**

Ez, normalean batekin hasten naizenean amaitu arte aritzen naiz hori lantzen. Hori bai, aipatu bezala, tartekatzen ditut, noski nire lanak aginduekin. Azken horiek markatzen dute hein batean nire sorkuntza lan propioen erritmoa. Enkarguak oso garrantzitsuak dira niretzat, hileroko jorraldi lortzeko bide ematen baitidate, baina nire ka-



buz ateratzen diren obrak landu eta saltzea litzateke niretzat ederre-rena.

Ez dut lan bat baino gehiago batera egiten. Gustatzen zait lanean ari naizenarekin zentratu, horrek behar duen denbora guztia eskaini eta nire begia gustura geratu arte horrekin aritzea.

#### Hamasei horien guztien artean bada gustukoena duzunik?

[Erakusketa aretoak bi solairu ditu eta goikora igo gara bertan erakusgai jarritakoak ikustera]. Denak nik sortuak dira, hortaz ezin dut bakar bat aukeratu. Batzuk beste batzuk baino errazago egin ditut, beste batzuk egiteko, aldiz, denbora gehiago behar izan dut... Normalean, gehien gustatzen zaidana azken obra izaten da, freskotasuna duelako.

#### Arbasoak-en kasuan, Udazkene-ko euria izenekoa da, baina ezin- go nuke bakar bat aukeratu. Denak ezberdinak dira, ez dago kopiarik, ezta interpretazio ber- dintsurik, orduan, ez daukat bakar bat aukeratzetik. Nik, nire etxean denak jarriko nituzke.

#### Lan horiek guztiak erakusgai ego- teaz gain, salgai ere badaude?

Bai. Edonork nire lan hauetakoa bat erosi nahiko balu, nirekin harremanetan jartzea nahikoa litzateke ([info@gotzonhuegun.com](mailto:info@gotzonhuegun.com)). Guztiak pieza bakar gisa erregistratu ditugu, hala erosleak ziurta dezake erosi duen obra bakar eta eksklusiboa dela, hau da ez dagoela munduan inon, erosi duenaren pieza berdinek.

Norbanakoek erostea ongi dago, baina erakundeek eros ditzaten ere egiten dut indar. Horrela, gizarteari erakutsiak geratuko baitira, hein batean, denonak izaten jarraituko dute. Norbana-ko batek bere etxerako erosten badu, aldiz, hor geratuko da; etxe horretan daudeneko edo bertara joango direnako bakarrik ikusiko dute.

#### Horiek denak zurez egin dituzu. Zein egur mota da?

Bertako egurrak erabiltzen ditut; haritza, gaztainondoa, intxaur- rondoak, gereziondoak... gure basoetakoak. Horrek gurekiko

## HAMASEI ARTELANEK OSATZEN DUTE ERAKUSKETA; LAU ESKULTURAK ETA HAMABI MURALEK



Huegunen eskuak, 'Liken I' artelanaren gainean. Obra hori izan da 'Arbasoak' osatzen duten guztietatik egin zuen lehena. TXINTXARRI

nortasun bat dauka; mendeetan zehar, gure etxeetako altzarieta- rako erabili diren egurrak dira, orduan, gurekin ere lotura hori badute.

#### Eta zergatik erabili duzu material hori?

Beste material batzuk ere erabiltzen ditut, harria esaterako; hori eta egurra dira nire mate- rialik gogokoenak. Zergatik? Ez daukat garbi. Izan liteke material horiek lortzeko izan dudak ger- tutasunagatik, baina arrazional- ki ezin dut esan.

#### Nola lantzen da egurra?

[Liken I murala hartu du eredu azalpena emateko]. Lehendabizi, irudi batean oinarrituta dago lana. Irudi hori argazki bitartez islatzen dut paper batean, marrazkiaren bitartez. Gero, segun eta zein lan egin behar dudak, behar den egurra lortzen dut, izan ere batzuk beste batzuk bai- no hobeak baitira. Adibidez, lanak detaile asko baditu, egur batzuk errazago apur daitezke, orduan, bigarrenengo pausoa lan bakoitzarentzat egur motarik egokiena aukeratzea da. Hori egin ostean, marrazkia eskalan egiten dut, eta egurrean islatu. Zurak, hasiera-hasieran tabloiak dira; batzuetan bat baino gehia- go ere elkartzten ditut, lortu nahi ditudan dimentsioak emateko. Eta marrazkia islatuta dagoe- nean, egurra kentzen, arbastua egiten hasten naiz. Silueta mar- katzen dut arkatzarekin, eta

hortik kanpo geratzen den guz- tia kentzeko lana izaten da hori. Horrela sortzen da lehen erlie- bedun planoak. Horren barruan, berriz ere silueta marrazten dut, eta hortik kanpo geratzen dena kentzen dut, eta horrela, apur- ka-apurka.

Desbastearekin amaituta, per- filatzeko txanda izaten da gero. Adibidez, mural honetan, liken guztiak marraztu ditut, eta trin- txia izeneko erremintarekin moztu egiten ditut perfil guztiak.

Eta hirugarren pausoa litza- teke definizioa. Horretan, era- bakitzen dut mugimenduak emateko egurra nondik kendu behar dudak. Amaitzeko, kasu honetan, kolorea erabili dut.

#### Egurraren berezko kolorea da na- gusi 'Arbasoak' osatzen duten obretan, baina bestelako batzuk ere erabili dituzu zenbait lan osa- tzeko.

Bai, pintura eta eskulturaren arteko uztarketa lan bat da *Arbasoak*. Margoak argitasuna eta bizia ematen dit eta hori ere niretzat garrantzitsua da. Erlie- beak ematen didana da indarra; hirugarren dimentsiorantz ga- ramatza.

#### Uztailean inauguratu zenuen era- kusketa. Zer-nolako harrera izaten ari da?

Harrera ona izaten ari da. Jen- dea pasatzen ari da estudiotik, eta esaten didatena da oso gau- za ezberdina ikusten ari direla, orain arte ez dituztela horrela-

ko formak, produktuak ikusi. Nire lan hauek egur tailaren teknikarekin eginak daude, bai- na orain arteko egur taila gera- tu da irudi zehatz batzuetan, eta hemen, berrikuntza bat ikusten da. Hori da nire asmoa; egur taila diziplina artistikoaren mailan ipintzea. Artisautzan geratzen da bestela, mesprezurik gabe, hori ere ofizioa baita eta hau egiteko hori ere beharrezkoa baita. Tradizio hori barruan dut, baina beste gauza bat isla- tzea izan da asmoa eta uste dut asmatu dudala. Duela egun bat- zuk, musika klasikoak emanal- di bat izan genuen hemen, estu- dioan. Jende ugari bildu ginen, 50 bat. Nik musika klasikoarekin egiten dut lan tailerrean, orduan, bada nirekin oso lotuta dagoen diziplina bat. Zazpi pieza jo- zizutzen, eta oso emanaldi polita izan zen; bataren eta bestearen artean, nire lanen nondik nora- koak azaldu nituen. Zerbait ezberdinat sortu genuen.

#### Hilaren 30era arte bisitatu ahal izango dute interesdunek.

Bai, hori da. Estudiora etortze- ra animatu nahi dut jendea (Za- ragoza Plaza, 3. zenbakia, Do- nostia). Hil amaierara arte dute horretarako aukera honako ordutegian: astelehene- tik, larunbatera 10:30etik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara. Igan- de eta jai egunetan, berriz, 10:30etik 13:00etara. Bisitari- ek goza dezaten nahi dut, uste bai-

tut edertasunaren bitartez ere ongizatea lor daitekeela. Lanak saltzeaz gain, iruditzen zait jen- dearen gozamina ere gauza ederra dela.

#### Ba al duzu beste lan edo proie- turik eskuartearen?

Badaramat denboratxo bat zien- tzia eta artearen arteko harreman bat sortzeko lanean. Mikrosko- pio elektronikoaren bitartez ko- nexio neuronaletan ateratzen diren irudien dokumentazio pila bat daukat. Oso erakargarriak diren irudiak dira, mugimendu asko dutenak eta horien natu- rarekin ere nolabait erlaziona- tuta egon daitezke, gu natura baikara. Hor ikusten ditudan irudiak izugarri ederrak dira, eta horrekin lotuta joango da hurrengo lana. Marrazki batzuk eginak ditut eta egur xafra batzuk ere prest ditut.

Basoarekin ere erlazionatzen ditut irudi horiek, izan ere, basoan, neguan zuzaitzek hostoak galtzen dituztenean, horien az- pian etzanda jarrita ikus dai- tezkeen sare horiek neuronon sarean antzekoak dira. Hori daukat eskuartearen.

## "BASOAN DENOK TOPA DITZAKEGUN IRUDIAK IKUSIKO DITUZTE BERTARATZEN DIRENEK"





Aiora Belartietia herritarra, Kontxako Bandera astintzen. JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN / IRUTXULOKO HITZA

## Donostia Arraun Lagunak, garaiezia

Aiora Belartietia herritarrak eta Donostia Arraun Lagunak-eko eskifaiak duela bi urteko balentria berretsi dute; Euskotren Liga eta Kontxako Bandera irabazi ditu. Estropadako errekorra berri du Lugañenek, Kontxako bigarren jardunaldian

### Txintxarri

Kirioak dantzan zeuden hilaren 10ean Donostiako Kontxako badian. Emakumezkoen mailako Ohorezko txanda zirraragarria espero zen, lau traineruak bost segundotan baino gutxiagotan zeuden.

Donostia Arraun Lagunak-ek denboraldia biribiltzeko ez zuen banderak ihesi egitea nahi, ordea. Eta 2021ean bezala, garaipena erdietsi zuen Lugañenek.

Orio indartsu atera zen arren, Donostia Arraun Lagunak eta

Donostiarra gertu izan zituen. Egoera badia utzi eta itsasoan sartzean aldatu zen. Donostiako bi ontziek mirotzak atzean utzi zituzten eta zibogaren bila lehen postuan zen Donostia Arraun Lagunak. Aiora Belartietia he-

## Manso Euskadiko txapelketako probetako podiumean izan da

Bigarren postua eskuratu du gidariak San Cosme eta Dimako probetan. Bere mailako garaile ere izan da

### Txintxarri

Euskadiko Mendi igoeren denboraldiak aurrera darrai. Hilaren 16 eta 17an, Jaizkibelgo igoera jokatu da eta Lasarte-Oriako gidariak lehian izango dira. Horien artean podiumean egoteko gogor lehiatuko da Aitor Manso gidari gaztea. Udan zehar izan diren beste bi hitzorduetan egindakoaren antzera garaikurra eskuratu nahi du herritarrak.

Mendiko gidariak abuztuan atsedena izan duten arren, uzta-laren 22an, San Cosme igoerari eta hilabete hasieran Dimako



Manso, Talex M3a gidatzen. A. MANSO

probari egin zieten aurre. Bi saioretan Aitor Manso herritarra podiumera igo zen. Zehazki, sailkapen orokorreko bigarren sail-

katu zen bietan eta bere mailako (9. klasea) garaile izan zen Jaizkibel eskuderiako gidaria.

### Ibilgailua konpontzen

Lehiaketa horien aurretik arazo larri bati aurre egin behar izan zion gidari gazteak, ordea. Uztail erdialdean, Espainiako ligako proban motorra hautsi zuen eta ezin izan zuen Chantadako 49. igoeran parte hartu. Bere ibilgailua konpondu bitartean, Madrilgo Talex talderen eskuzabaltasunari esker lehiatu ahal izan da Manso denboraldiko bi jardunaldi horietan eta horregatik eskertua dagoela adierazi digu herriko gidariak.

Jaizkibelen bere ohiko BRC B49 ibilgailua lehiatzeko prest izango du Mansok eta eguraldiak kotxeak baino gehiago kezkatzen duela onartu du.

rritarrak lan ederra egin zuen puntu horretan eta bost segundoko errenta izan zuen Lugañenek.

Bigarren luzean, borroka handia egon zen baina Donostia Arraun Lagunak erritmoari ederki eutsiz aldea ireki eta nagusitasunez gailendu zen. 10.23,32 denbora eginez, gainera, estropadako errekorra ezarri zuen. Atzetik Donostiarra sartu zen zazpi segundora eta Orio hirugarren izan zen.

Intza Fernandez eta Hondarribia Bertako Igogailuak, aldiz, lehen txandan lehiatu ziren. Kaiku eta Hibaikarekin ederki borrokatu zen Ama Guadalupekoa eta bostehun metro faltan, Hondarribiak aurea hartuz, bosgarren postua (10.55,48) eskuratu zuen.

### Adegi saria

Ez da bandera Donostia Arraun Lagunak-ek eraman duen aintzatespen bakarra izan. Eguneko ospakizunen artean, Eneko Goia alkateak eta udal korporazioak Parte Zaharreko Plaza Berriko udaletxe zaharrean egin zieten harrera eta balkoira atera ziren kideak euren jarraitzaileei garaipena eskaintzeko.

Kontxako Banderako lehen traineru gipuzkoarra izateagatik, gainera, Kultura Berriaren Adegi saria jaso dute Lugañeneko kideek; Mutilen mailan Hondarribiak jaso du. Hilaren 11n, banatu zen saria Donostiako udaletxean.

## Urteurren berezia

Duela 50 urteren antzera, lasarteoriatar batek Kontxako bandera dantzan jarri du. 1973. urtean, Michelin-Lasarte ontziko kideak nagusi izan ziren eta bigarren ezkuratu zuten bandera –lehen bandera, 1969 urtean irabazi zuen ontziak– Antonio Oliden patroiz zuela. Bitxikeriak bitxikeria, Belartietak ere bigarren ezkuratu du garaikurra.

### Sailkapen orokorra (bi asteburuak batuta):

- 1. Donostia Arraun Lagunak:** 21.01,14
- 2. Donostiarra:** 21.10,50 (+09,36)
- 3. Orio:** 21.19,22 (+18,08)
- 4. Tolosaldea:** 21.22,14 (+21,00)
- 5. Hondarribia:** 21.54,80 (+53,66)
- 6. Hibaika:** 21.55,88 (+54,74)
- 7. Zumaia:** 22.07,10 (+01.05,96)
- 8. Kaiku:** 22.15,16 (+01.14,02)



BELTZAK RT

## Munduko Kopaz gozatzen

Beltzak Errugbi taldeko 50 bat bazkidek asteburu pasa ederra egin zuten hilaren 9an eta 10ean Bordelen, Frantzia. Munduko Errugbi Kopari esker, nazioarteko mailako norgehiagoketaz gozatu zuten beltzek. Irlandak erraz garaitu zuen Errumania, 82-8. Gales eta Fijiren arteko borroka, aldiz, parekatuagoa izan zen. Azkenean, galestarrek izan ziren garaile, 32-26.



# Ohorezko kadeteak, ezin garaipena erdietsi

Ostadar SKTko Ohorezko Kadeteak liga hasi du. Lehen jardunaldian Martuteneren aurka jokatu dute Jagoba Mendizabalen mutilek. Nahiz eta erasoan arriskatu, Donostiako taldearen egoera fisikoa gailendu da neurketa 3-0 amaituta

## Txintxarri

Hasi da futbol denboraldia. Ostadar SKTko Kadete Ohorezkoa izan da lehena lehiara itzultzen. Hilaren 9an, Martuteneren aurka neurtu zituen indarrak Jagoba Mendizabalek zuzentzen duen taldeak, Donostian. Talde urdin-beltzak ez zuen neurketa ona egin eta egoera fisikoari esker etxekoek eraman zituzten lehen puntuak.

Partidako lehen aukera garbiak Ostadarrenak izan ziren ere, atezainaren aurrean ez zuten zorterik izan herriko taldeko gazteek. Eta hori baliatuz, erdiraketa baten ostean, buruz egin zuen Martuteneren lehen gola.

Animoak jaitsi ziren talde urdin-beltzean eta fisikoki ere, beroak ez zuen lagundu. Ondorioz, atsedendira iritsi baino lehen bigarren zuluatu zuten atea donostiarrek.

Aldaketa batzuei esker, bigarren zatia indartsu hasi zuen ohorezko kadete taldeak. Alabaina, lehen zatia antzera, urdin-beltzek



Kadete Ohorezko taldea, neurketa hasi baino lehen. OSTADAR SKT

ez zituzten ongi baliatu gol aukerak. Arrisku handia hartu zuen Ostadarrek eta ondorioak izan zituen; Martuteneren hirugarren gola egin zuen.

Partidari itzulia emateko ahaleginak egin nahi bazituen ere, Mendizabalek ez zuen zortea lagun izan. Aldaketa guztiak eginda bi jokalarik min hartu zuten eta bederatzi kiderekin amaitu behar izan zuen partida.

Hurrengo hitzordua Touringen aurka du Ostadarrek eta etxean

hiru puntuak lortzea izango dute helburu, "denboraldia lasai hasiteko".

## Gainerako taldeak

Ostadarren gainerako mailek zein Texas Lasartearrak lau taldeek hurrengo bi asteetan izango dituzte ligako lehen hitzorduek.

Hilaren 17an, esate baterako, talde urdin beltzeko Gorengo Mailako eta Ohorezko Jubenil taldeen txanda izango da.

## Junior eta Kadete Errendimendu taldeei atsedena amaitu zaie

Ostadar Saskibaloi ataleko errendimendu mailako junior eta kadete taldeek lehen jardunaldia jokatuko dute

## Txintxarri

Udako atsedenen ostean, Maialen Chourraut kiroldegiko kantzak saskibaloi neurketa ofizialerara itzuliko da. Ostadar Saskibaloi ataleko junior zein kadete errendimendu taldeek hilaren 16an emango diote hasiera lehiari etxean. Biek Eskoriatzako taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Saskibaloiko zaletuek goiz pasa ederra egin dezakete, bi neurketak jarraian izango baitira. Lehenik kadeteak aterako dira



Iazko sasoiako neurketa bat. TXINTXARRI

kantxara 10:00etan eta eguerdian hasiko da juniorren norgehiagoka.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### GORENGO MAILA

Urnieta CD - Ostadar SKT  
Igaudea. 18:15. Zubipe, Hernanin.

#### OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Añorga KKE B  
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

#### OHOREZKO KADETEA

Ostadar SKT - Touring KE  
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

### SASKIBALOA

#### JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Hemen Garbiketak Eskoriatza KE  
Larunbata. 12:00. M. Chourraut kiroldegian.

#### KADETE ERRENDIMENDU URREA

Ikerra Eskoriatza KE - Ostadar SKT  
Larunbata. 10:00. M. Chourraut kiroldegian.

### PILOTA

#### ESKUZ BINAKA, 3. SENIORRA

Intza KE - Eibar 1

Larunbata. 12:00. Michelin  
kirol guneko pilotalekuan.

#### PALA, 3. SENIORRA

Intza KE - Errepala  
Ostirala. 20:00. Loidibarren pilotalekuan.

### XAKEA

#### GROSEKO TXAPELKETA

Herriko xake jokalariek Groseko Nazioarteko txapelketan parte

hartzen ari dira. Azken jardunaldia jokatuko dute.  
Ostirala. 16:00. Donostian.



### PIRAGUISMOA

#### MUNDUKO TXAPELKETA

Maialen Chourraut herritarra esalon eta kayak kros modalitateko Munduko txapelketan izango da lehian.

Hilaren 19tik 24ra. Lee Valley, Britania Handian.

### LASTERKETAK

#### BAXURDE KROSA

Herriko korrikalariak XIV. Baxurde krosoan lehiatuko dira.  
Igaudea. 10:30. Usturberen.

### TRIATLOIA

#### ZUMAIKO TRIATLOIA

Herritar zein Trinkoko kideek Zumaiako Sprint Triatloi proban parte hartuko dute. Gipuzkoako txapelketa jokoan izango da.

Larunbata. 17:10. Zumaian.

### AUTOMOBILISMOA

#### JAIZKIBELGO IGOERA

Herriko gidariek Mendi igoeratako jardunaldi berria izango dute, 45. Jaizkibelgo igoera.

Igaudea. 08:30. Lezon.

## Udako denboraldiari agur esan diote zaldien zaletuek

Janacek-ek gidatutako 'The Way of Bonnik'-ek irabazi du denboraldiko azken saria, Donostiako Sari Nagusia

## Txintxarri

Donostiako Sari Nagusia jokatzearekin batera udako denboraldia amaitu da Hipodromoan. Hilaren 10ean, zaldien zaletuek 2023 urteko azken lasterketetaz gozatu zuten.

Eguna ongi hasi zuen gerora sari nagusia eskuratuko zuen Vaclav Janacek jockeyak, *El Sokhna*-rekin barruko erraila hartu eta nagusi izan zen Kirol txartela sarian.

Espainiako Amateurren Kopa izan zen bigarren lasterketa. Claudia Tena-Gaheris bikoak Alvaro Sainz eta *One More Night*-ekin zuen borroka zuzengunean erabaki zuen; Tenak ere makil ondoko eremua aukeratu zuen garaipena erdiesteko.

Eguneko hirugarren sarian, Donostiako Sustapena sarian, Mouettes zalditeriko kide *Rosso Antico*-Sikorova eta *Dream*



Bigarren sariko irabazleak. I. FARRE RICO

*Breath-Sanchez* bikoek faboritoak gaudituz zituzten azken 200 metroetan eta lehen bi postuetan igaro zuten helmuga, hurrenez hurren.

Sari nagusiaren aurretik, Aratz Erretegia jokatu zen eta azken metroetan *Nyala* eta Nicolas de Julian izan ziren garaile.

Egunari amaiera emateko, Janacekek bigarren garaipena erdietsi zuen *The Way of Bonnik* zaldiarekin. Aurkariei alde handia atera zien helmugan.



# Aurten, festa; datorrenean, lasterketa

Lasarte-Oria Trail elkarteak, hilaren 24an aurrera eramango duen V. Mendi Festa aurkeztearekin batera, iragarri du hurrengo aldia 2025ean egingo duela. "Denbora faltagatik, festa eta lasterketa txandakatzea erabaki dugu", jakinarazi dute kideek

## Txintxarri

Kirolaz gozatu nahi dutenek aukera aparta izango dute horretarako hilaren 24an, igandearekin, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak festa giroko ekitaldia aurrera eramango duelako Belkoain eta Andatza mendietan barrena: V. Mendi Festa. Ibilbide luzeak 26 kilometro eta erdi izango ditu; motzak, 15 kilometro. Hurrengo aldia, seigarrena, ondo bidean 2025ean egingo dute, irailko data mantentzea baina festa eta lasterketa txandakatzea erabaki dutelako. "Urte berean erokeria da esku artean ditugun proba guztiak antolatzea, apenas uzten digulako denborarik familiarrekin egoteko eta aisialdirako", argudiatu du LOTMEko kide Olazagoitiak. Horrek esan nahi du datorren urtean, garai honetan, II. Mendi Lasterketa aurkeztuko dutela.

Horiek, aurreragorako kontuak. Aurtengo festari dagokionez, partaideak, ohi bezala, Okendo plazatik irtengo dira: ibilbide luzea egingo dutenak (26,5 kilometro eta 1.350 kilometroko desnibel positiboa), 07:00etan, eta motza gauzatuko dutenak (15 kilometro eta 700 metroko desnibela), 09:00etan. Olazagoitiak gogorazi du izen ematea zabalik dagoela eta tramitea [www.lasarteoria-trail.com](http://www.lasarteoria-trail.com).



Udal ordezkariak eta LOTMEko kideak, aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

*trail.eus* webgunean egin behar dutela. Federatuek 16 euro ordaindu behar dituzte; ez federatuek, 18. Parte hartzeko aukera izango dute baita ere 16 urte baina gutxiagoko gazteek, 14 eta 12 euroren truke, hurrenez hurren.

Ibilbide luzeak, besteak beste, Belkoain eta Andatza mendietako gailurrak igaroko ditu; motzak, berriz, azken horretako tontorra. "Buruntza kanpoan uztea erabaki dugu, uztaileko lasterketa han egin genuelako".

Olazagoitiak eskerrak eman dizkio udalari mendi festa an-

tolatzeko emango dion laguntza guztiagatik. Aurkezpen agerraldian izan diren Agustin Valdivia alkateak eta Kirolak saileko buru Goizalde Pildainengandik esker hitzak entzun dituzte bueltan LOTMEkoek; herritarren artean mendizaletasuna sustatzen jarraitzera animatu dituzte.

Amaitzeko, boluntarioen lana goraipatu du Olazagoitiak: "Gipuzkoako Foru Aldundiaren lana egiten dute, eskokatzeko makina hartu eta bideak garbitzen. Haiengatik ez balitz, ezin go genituzke probak antolatu".

egin behar dira; hilaren 17ra arte jasoko dira izenak.

Adin ezberdinetara moldatutako kirol jarduerak eskaintzen ditu egitasmoak. LH1- LH2 mailakoek Jolas hezi programa dute; LH3-4 mailakoek Multikirola eta LH5-6 mailakoek, aldiz, Kirol anitzak.

Izena emate epea itxi eta hurrengo egunetan (hilaren 18an edo 19an), antolatzaileek familia guztiei egokitutako eguna, tokia, ordua eta xehetasun gehiago jakinaraziko dizkiete mezu elektroniko bidez.

## Eskola Kiroleko izen emateak berriro ireki dituzte

Guraso elkarteek esteka bidali diete familiei eta inskripzio berriak jasoko dituzte hilaren 17ra arte

## Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Landaberri zein Sasoeta-Zumuburu ikastetxeko guraso elkarteek antolatzen duten Eskola Kirola egitasmoa urriaren 2an hasiko da.

Eragileak lanean ari dira guztia prest izateko. Ekainean lehen izen ematea ireki bazuten ere, inskribatu ez diren haurrek parte hartzeko beste aukera bat dute. Inskripzio berriak guraso elkarteek familiei bidalitako estekaren bidez

## Intza Kirol Elkarteko kideak lehia hasteko prest dira

Intzako pilota sailak lehenengoz pala talde bat izango du lehian; 3. mailan konpetituko dute

## Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko kideek Ezker Hormako Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketa hasiko dute hilaren 17an. Aurten berrikuntza ugari ditu taldeak Jose Felix Solano entrenatzaileak azaldu duenez.

Eskuzko txapelketan, senior mailan bakarrik lehiatuko da Intza. Iaz herriko elkarteak maila horretako jokalaririk ez bazuen inskribatu, aurten hiru kide izango ditu kategorian horretan lehiatuko: Jon Pello Artetxe, Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta.

Hirurek taldea osatu eta 3. mailan bikotekako lehiarekin hasiko dute denboraldia etxean. Artetxek eta Urdanpilletak Eibar 1 bikotea izango dute aurrez aurre, hilaren 16an, eguerdian.

Eta Beñat Olazabal jubenila, aldiz, Hernaniko taldean entrenatu eta lehiatuko da.

## Palako lehia

Modalitate berri batean ere borrokatuko du Intzak aurten, palan. Jagoba Mendizabalek, Julen Urruzolak eta Iker Artetxek osatuko dute taldea. Alabaina, Mendizabal eta Artetxe minduta daudenez, azken momentuko fitxaketa egin



TXINTXARRI

dute eta Xabier Arteagak parte hartuko du txapelketan.

Loidibarren pilotalekuan jokatuko dituzte neurketak eta 3. mailan hasiko dira lehian. Lehen partida gaur, hilaren 15a, 20:00etan izango da. Arteagak eta Urruzolak Errepalako bikoteraren aurka neurtuko dituzte indarrak.

## Pilota eskola

Bestalde, hilaren 12an, pilota eskolako entrenamenduak hasi zituzten, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Eskolako gaztetxoek astearte eta ostegunetan izango dituzte saioak, 17:30etik 19:00etara.

Intzako arduradun Solanok adierazi duenez, pilotan jokatze-ko interesa duten 2010-2016 urteen artean jaiotako haurrek orandik aukera dute izena emateko. Inskripzioa eskolako saioetako ordutegian egingo da. Azken eguna hilaren 28a izango da.



BAT BASQUE TEAM

## Chourraut, podiumetik gertu

Piraguismoko Munduko Kopako jardunaldia izan zen abuztuaren 31tik irailaren 3ra La Seu D'Urgellen, Herrialde Katalanak. K1 mailako eslalonen eta kayak kros modalitateko probetan lehiatu zen Maialen Chourraut herritarra eta podiumeko atarian geratu zen. Bi txapelketetan kanporaketak gainditu, finalera iritsi eta laugarren postua eskuratu zuen herritarra. Hitzordu garrantzitsua du hurrengo egunetan herriko palistak. Hilaren 19tik 24ra Munduko txapelketa jokatuko da Lee Valleyen, Erresuma Batuan eta Joko Olinpikoetako plazak jokoan izango dira.




## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Manex**  
Zorionak Manex!!!  
Gure etxeko txikiak,  
Irailaren 17an, bere  
lehen urtetxo betekoa  
du!!! Oso ondo  
ospatuko dugu... Muxu  
asko asko...famili  
osoaren partez!!!



**Unax**  
Zorionak Unax!!!  
Asko maite zaitugu!!!  
Oier, Maddi, aita eta  
ama.



## Jaio da!

DEITU 943-37 14 48 TELEFONORA, BIDALI  
HAURAREN IZEN-ABIZENAK ETA JAIOTZE  
DATA TXINTXARRI@TTAKUN.EUS HELBIDE  
ELEKTRONIKORA EDO 688 68 35 10  
WHATSAPP ZENBAKIRA.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15	DE MIGUEL
LARUNBATA, 16	DE ORUE
IGANDEA, 17	DE ORUE
ASTELEHENA, 18	LASA
ASTEARTEA, 19	GIL
ASTEAZKENA, 20	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 21	URBISTONDO

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00**  
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11,  
Hernani. 943-33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK'**  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
webgunean eskuragarri.

## ESKUTITZAK

## Euskaraz bizi nahi dugu?

**ENEO OROZ ORMAZABAL ETA IRUÑE ASTITZ LARUNBE** SAREKO EDUKI SORTZAILEAK

Gure egunerokoan pantailek oso presentzia handia dute. Izan ere, zenbat aldiz begiratzen diogu mugikorrari egunean zehar? Eta tablet, ordenagailu edota telebistari?

Zorionez, gero eta gehiago hitz egiten ari da pantailez. Pare bat asteko tartean, hiru aldiz irakurri dugu haien inguruko aipamenen bat prentsa idatzian. Hauek irakurtzean hainbat zalantza sortu zaizkigu: zertaz ari gara pantailetaz hitz egiten dugunean? Zer ikuspuntutatik hitz egiten da pantailen inguruan?

Azken aldian, tamalez, pantailetan euskara sustatzearen aldarrikapena streaming plataforma zein telebista formatuetara bideratuta dauden ikus-entzunezkoetara mugatu da. Izan ere, pantailen inguruan sare sozialetako edukiaz hitz egiten denean, gehienetan, kanpo mehatxu bezala ikusten da.

Sarea, eta bereziki, sare sozialak hizkuntza hegemonikoei (gaztelania, frantsesa edota ingelesa, adibidez) atea irekitzen dieten tresnak direla aipatu izan da, garai batean rockarekin gertatu zen bezala. Baina, gaur egun, rocka ez al da

euskal musikaren parte? Zenbat pertsona gerturatu dira euskarara garai batean gure hizkuntzarentzako mehatxutzat hartu zen musika estilo horri esker?

Sarea gure egunerokoan presentzia handituz joan den heinean, euskara erdigunean duten proiektuak sortu dira. Bere garaian Hertzainak edo Zarama taldeek rockarekin egin zuten moduan, hainbat lagun pantailetan edukia euskaraz sortzen gabiltza, atsegin ditugun ikus-entzunezkoak euskaratzen ari gara eta bideojokoen, rolaren, manga eta animearen, zinemaren zein Kodi bezalako tresnen zaleok elkarguneak sortu ditugu sareak eskaintzen dituen aukerak baliatuz. Inork ezer esan gabe antolatuta eta martxan jarri gara, bozgorailuetatik pantailak munduaren akabera direla esaten den bitartean.

Gero eta jende gehiago gara Interneten euskaratik eta euskaraz bizitzeko bidea egiten gabiltzanak; Youtube, Twitch, Tik Tok eta Instagram bezalako sare sozialetan edukia sortuz edota puntako film, telesail zein bideojokoak euskaraz egon daitezzen lan eginez, adibidez.

Hala ere, gaur egun, euskaldun gehienok sare sozialak, streaming plataformak edota bideojokoak erdaraz kontsumitzen ditugu eta bilaketak erdaraz egiten ditugu. Izan ere, askotan ez dakigu atsegin dugunaren inguruko edukia euskaraz dagoen, eta egotekotan non edo nola topa daitekeen.

Pantailei buruz eztabaidatzeak beharrezkoa izaten jarraitzen duen bezala, gurea bezalako hizkuntza komunitate batean ezin dira gutxietsi sareak hizkuntzaz gozatzeko eta horren normalizaziorako ematen dituen aukerak.

Horregatik, oso garrantzitsua da euskara erdigunean duten proiektu eta edukia bultzatzea: sare sozial ezberdinetako eduki sortzaileen lana ezagutzera emanez, gai espezifikoaren inguruko euskarazko komunitateak sustatuaz, *Zer Non Ikusi* bezalako tresnak ezagutu eta zabalduz edota euskarara itzultzen, bikoizten edo azpigitulatzaren direnak kontsumituz, adibidez. Beraz, euskaraz bizi nahi dugun heinean, garrantzitsua izango da halako espazioak ezagutu eta kontuan hartzea.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA:  
943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK:  
943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAITZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## ESKUTITZAK

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehartu beharko dute.



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

### LANA

#### ESKAINITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabeitza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH4. kurtsoan dago eta bestea DBH4en. Utzi mezua whatsappen zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... 688 74 09 31.

### ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxe-ko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxe-ko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egin dut. Zubieta bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubieta bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

txintxarri

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

### Administrataria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Irti Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

### Banatzzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

Emaiguzue zuen ekitaldien berri asteazken arratsaldea baino lehen.

Tel.: 943-37 14 48 / [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## OSTIRALA 15

### LASARTE-ORIA Azoka

Xacobeo Erdi Aroko VII. Azoka egingo dute Okendo plazan eta Kale Nagusian. Elikagai eta bestelako produktuen 112 postu, ikuskizunak eta tailerrak aurrera eramango dituzte, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ekimenak doakoak izango dira.

**17:30ean**, azokaren irekiera.

**18:00etan**, taldeen hasierako kalejira: Te atraca la calle, Treefolk eta Zirko Loretsua.

**18:30ean**, Amalurra ipuin kontalaria.

**19:15ean**, Zirko Loretsua.

**19:30ean**, Treefolk.

**19:45ean**, Te atraca la calle.

**20:00etan**, Amalurra ipuin kontalaria.

**20:30ean**, Te atraca la calle.

**20:45ean**, Zirko Loretsua.

**21:45ean**, Treefolk.

**22:00etan**, su ikuskizuna.

*Erdigunea, 17:30etik aurrera.*

## LARUNBATA 16

### LASARTE-ORIA Azoka

Xacobeo Erdi Aroko VII. Azoka egingo dute Okendo plazan eta Kale Nagusian. Elikagai eta bestelako produktuen 112 postu, ikuskizunak eta tailerrak aurrera eramango dituzte, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ekimenak doakoak izango dira.

**10:30ean**, taldeen kalejira orokorra.

**11:00etan**, lanbideen herriaren irekiera.

**11:15ean**, kanpalekuaren irekiera.

**11:45ean**, Barzonia taldea.

**12:00etan**, Amalurra ipuin kontalaria.

**12:00etan**, Te atraca la calle.

**12:15ean**, Treefolk.

**13:30ean**, munduko armadura txapelketako gerlarien borrokaldiak.

**14:00etan**, Zirko Loretsua.

**17:30ean**, merkatuaren irekiera.

**17:30ean**, Amalurra ipuin kontalaria.

**17:45ean**, artisauen hitzaldiak.

**19:00etan**, Barzonia.

**19:00etan**, munduko armadura txapelketako gerlarien borrokaldiak.

**21:30ean**, Zirko Loretsua.

**22:00etan**, su eta argi ikuskizuna.

*Erdigunea, 10:30etik aurrera.*



### LASARTE-ORIA Azoka

Xacobeo Erdi Aroko Azokaren zazpigarren aldia aurrera eramango dute. Berrikuntza nabarmenena garai horretako borrokalarrien erakustaldiak izango dira. Ikuskizun eta tailer guztiak doakoak izango dira.

*Hilaren 15etik 17ra, Kale Nagusian eta Okendo plazan, egun osoan zehar.*

## IGANDEA 17

### LASARTE-ORIA Azoka

Xacobeo Erdi Aroko VII. Azokaren azken eguna izango da.

**11:00etan**, azokaren eta lanbideen herriaren irekiera.

**11:15ean**, kanpalekuaren irekiera.

**11:45ean**, Barzonia.

**12:00etan**, Te atraca la calle.

**12:00etan**, Amalurra ipuin kontalaria.

**12:15ean**, Treefolk.

**12:30ean**, Zirko Loretsua.

**13:30ean**, munduko armadura txapelketako gerlarien borrokaldiak.

**17:30ean**, merkatuaren irekiera.

**17:45ean**, artisauen hitzaldiak.

**17:45ean**, Zirko Loretsua.

**18:15ean**, Treefolk.

**18:30ean**, Amalurra ipuin kont.

**19:00etan**, munduko armadura txapelketako gerlarien borrokaldiak.

*Erdigunea, 11:00etatik aurrera.*

## ASTELEHENA 18

### LASARTE-ORIA Urteurrena

Lasartearra elkarteak aste gastronomikoa aurrera eramango du. Edozein bertara daiteke Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzara. Lehen egunean Herriko Etxea jatetxeko Javi Penas ariko da.

*Erribera kalea, 20:00etan.*

## ASTEARTEA 19

### LASARTE-ORIA Urteurrena

Lasartearra elkarteak aste gastronomikoa aurrera eramango du. Edozein bertara daiteke Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzara.

Bigarren egunean Lavie jatetxeko Javi Mendo ariko da.

*Erribera kalea, 20:00etan.*

## ASTEAZKENA 20

### LASARTE-ORIA Urteurrena

Lasartearra elkarteak aste gastronomikoa aurrera eramango du. Edozein bertara daiteke Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzara.

Hirugarren egunean Casa Humada-Txitxardin jatetxeko Sergio Humada ariko da.

*Erribera kalea, 20:00etan.*

## OSTEGUNA 21

### LASARTE-ORIA Urteurrena

Lasartearra elkarteak aste gastronomikoa aurrera eramango du. Edozein bertara daiteke Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzara. Azken egunean Avenida taberna-jatetxeko Yon Mikel Rodriguez ariko da.

*Erribera kalea, 20:00etan.*



txintxarri  
aterkiak

Euskararen  
aterpe!!

10€  
aterki 1

16€  
2 aterki

Jalgin eta  
Ttakuneko  
bulegoan  
salgai







# Kronika<sup>ren</sup>

aldeko Herriarteko Erremonte Txapelketa

2023 / 09 / 29 - 16:00 - *Galarreta jai-alai*

Bailarako 20 sagardotegi baino gehiagoren sagardoa | Dantzariak

**SARRERA 12€**  
PINTXOA + EDARIA  
\*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

**Kronika**

## HERNANIKO KIROLDEGIAN IRAILAK 17, 17:30ean

**Sarrerak: 10,00€**  
(+ eragiketa gastuak)

**30 DOBERA**  
EUSKARA ELKARTEA

Emazioz buelta bat zure munduari euskararekin 2023-24

**IBILBIDEAK**

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

**AGENTZIAK**

- Udaleko euskaltegia
- Munnteri-AEK euskaltegia

**BALDINTZAK**

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
  - Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
  - Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
  - Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gaitzuta.

*Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.*

**ONDO iBiLi!**

**BEKA** matrikularen arte **%85**

**Informazio gehiago**  
Udaleko euskarako zerbitzuan:  
• Helbidea: Kale Nagusia 22  
• Telefonoa: 943-37 61 84  
• e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

**LASARTE-ORIA**  
UDALA - ARRAUNTZARTEA